


LUR PLANETA ETA URA

Gaur egun, munduak 4.600 milioi urte dituelarik, oraindik ere, azalera gehiena urez estalita du. Lur planetaren %75 dago urak estalita, eta gelditzen den %25a gaur egun ezagutzen ditugun kontinenteei dagokie. Horrek esan nahi du, metro bateko zabalerako 100 karratu hartzen baditugu, 75ek ura izango dutela, eta beste 25ek lurra izango dutela.

PLANETA



Gure planetan, ur geza baino ur gazi gehiago dago: %94 ur gazia da, eta %6 soilik da ur geza. Gainera, ur geza guzti horretatik %33 bakarrik da gizakiontzat eta beste bizidun guztientzat erabilgarria. Beste guztia, %67, izotza da, eta glaziarretan eta luruburuetan (Ipar eta Hego Poloetan) dago.

URA



UR GEZA



UR GAZIA: AGUA SALADA

UR GEZA: AGUA DULCE

Nolakoa da hurrengo lekuetako ura, gazia edo geza? Eraman bakoitza dagokion laukira.

UR GAZIA

UR GEZA

Ebro ibaia

Mediterraneo itsasoa

Txorrotatik ateratzen dena

Igerilekukoa

Ozeano Atlantikoa

Izozkailuan dagoen izotza

Dutxakoa

Euria eta elurra

Itsaso Gorria